

Beste neska batzuen ohiturak ezagutu nahi ditut

Dewayne Slightweight

I Want to Know the Habits of Other Girls [Beste neska batzuen ohiturak ezagutu nahi ditut] komiki moduan hasi zen; bertan bilbatzen ziren osagai autobiografikoak eta lau pertsonaiaren istorioak: Limbo Tomboy, haur mirari konposatzailea; Gilda Radner, fikziozko komediantea, Jean Wilder izeneko emakumea maite duena Gene Wilder izeneko gizona maite beharrean; Gordon Gaskill, mundu alorreko aditua gizonen eta pelikanoen arteko harreman erotikoetan; eta Auntie, familiaren garra bizirik gordetzen duena. Garai hartan gutxi gorabehera hasi nintzen egiten berezko tamainako gizaki gorputz barrubeteak, satinezko azalarekin eta brodatuz estaliak, nire bakardade sentimenduetan inspiratuta, ezagutzen nuen jende askok, "lagunak" esaten nienak eta nire ganbara-apartamentu ñimiñoan bizi zirenak, Chicagotik alde egin zutenean. Performance bertsioan agertzen diren lau pertsonaien hezurmamitze fisikoa bilakatu ziren. Performancerako soinu-banda konposatzeko orduan pertsonaiak kantatzen eta hizketan hasten ziren, bai beraien artean, ni antzezle gisa, bai ikusleekin. Beti elkartzen eta berriz bereizten ari diren harremanak eta komunitateak, egongaitz baina ederrak inondik ere, psikodelikoak baina ez opakua, fantastikoak baina intimoak, plastikoki eta entzumena errazteko moduan adierazteko bide berriak nahi nituen.